

## Ikasleak gor eta mutu



**MIKEL BASABE**  
**KORTABARRIA**  
**IRAKASLEA**

**E**AEko unibertsitate publikoan sartzeko hautapropa aldatu egingo ei dute. Aurrerantzean, nonbait, Euskara ikasgaien literatura sartuko da, eta soziolinguistika, eta dialektologia. Orain arte legez, ahozko probarik ez da egingo, entzun-ariketak ere ez.

Batxilergoan, Euskara ikasgaiak hiru ordu ditu astean. Hiru ordu ditu orain, eta hiru ordu izango ditu datorren urtean. Eduki berriei lekua egin beharko zaie, oraingo edukiei orduak kenduta.

Batxilergoa, 2. maila bereziki, selektibitatearen neurri antolatuta dago: helburu nagusia, ahalik eta notarik altuena lortzea. Beraz, unibertsitatera sartzeko azterketan neurtzen ez denak ez dauka garrantzirik. Sobera dago. Eta Espainiako selektibitatean ahozkorik ez da neurtzen, ezta entzunezko ulermenik ere. Edukiak kentzen hasi behar dutenean, beraz, zer kenduko dute euskarari garrantzirik ematen ez dioten eskolek? Gogoratu ikastolak (kristauak eta besteak) eskola kontzertatuaren herena baino ez direla.

Alemanian edo Frantzia legez, hemen ere ahozko proba egingo bagenu, gure ikasle guztiek landuko lukete ahozkoa, eta zenbat euskara dakiten jakingo genuke. Jakingo genuke zein eskolatan den sistemikoa euskara nahikoa jakin barik amaitzea ikasketak: eskola horiek egon badaudelako, legeak zergura esanda ere.

Jakingo genuke neurri zehatz, zorrotz eta ausartak hartu behar ditugula, euskal hezkuntza sisteman ikasitako ikasleak benetan izan daitezen euskaldunak.

Gabeziak non ditugun jakingo genuke. Hori barik, zelan demontre hartuko dugu neurririk? Zer neurri proposatuko dugu DBH 4ko ikasleen euskara maila Hezkuntza Legean jasotako B2 izan dadin, ebaluazio diagnostikoek ikasle horien euskara maila zein den neurtzen ez badute? Zer neurri proposatuko dugu batxilergoko ikasleak euskaldun funtzionalak izan daitezen, selektibitatean beren euskara maila neurtzen ez bada? Pentsa: A eta D ereduko ikasleek euskara azterketa bera egiten dute EAEn (Nafarroan ez).

Baina gure hezkuntza sisteman ikasitako ikasleen euskara maila benetan zein den jakingo bagenu, normal plantak egiteari utzi beharko genioke. Izan ere, normal plantak egiteko funtsezko premisa da datu fidagarririk ez izatea, datu horiek begien bistan utziko liguketelako egoeraren gordina, hezkuntza sistemaren mugak. Gure hirietan benetan zenbat gazte euskaldun dagoen.

Beharbada horregatik ez da inoiz neurtzen gure ikasleek benetan zenbat euskara dakiten: gurago dugu sinetsi 34 urtetik beherako gasteiztarren %78,7 euskalduna edo ia euskalduna dela. ●

## Kafea



**LEIRE NARBAIZA**  
**IRAKASLEA**

**G**oiz hotza da gaurkoa. Lanerako bidean denok batu-batu eginda goaz. Elurra ei dakar. Halako batean, kafe termoa eskutan daroan emakume batekin gurutzatu naiz. Bai, film estatubatuarretan bezala. Nire kantuan diot: "Kafea eskutan? Zer ote doa, oinez eta edaten?". Harrigarria.

Niretako kafea ezinbestekoa da, eta beti atseginarekin, plazerarekin lotzen dut. Goizekoa, barkatzen ez dudana, *tximino* uxatzailea, esnatzeko bai ala bai behar dudana, beharrezkoa. Egunean zeharreko besteak –gero eta gutxiago, portzierto–, pausa bat errutinan; lagu-

nekin konfidentzia momentua, edo kontuak kontatzeko parada; bazkalosteetako solasaldiaren abiapuntua...

Ordenagailu aurrean hartu arren, kafe kikarari ondo oratu eta zurrut bakoitza mikro-gozatua bihurtzen da, atsedeen momentua, nahiz eta makinako kafe kaskarra izan. Lasaitasuna eragiten didan edari estimulatzailea. Hara, kontraesana!

Iradokitzen didan guztia bateraezina da oinez ibili bitartean kafea hartzearekin. Batez ere lanerako bidean, presaka eta estu. Kafea edari bero eta suspergarria baino ez da horrela, ez dagoelako inolako patxadarik, ez dago barnebiltzerik. ●